

Genero berdintasuna pentsamendu historikotik lantzeko proposamen didaktikoa: *Emazteen fabore**

Propuesta didáctica para trabajar las desigualdades de género desde el pensamiento histórico: *Emazteen fabore*

Teaching proposal for working on gender inequalities from the perspective of historical thinking: *Emazteen fabore*

Janire Castrillo y Aida Castrillo**

RESUMEN LABURPENA ABSTRACT

Las leyes educativas de diversos ámbitos promueven una mayor presencia de dinámicas coeducativas en los centros escolares. En el presente trabajo ofrecemos una propuesta didáctica para 2º de ESO para trabajar las desigualdades de género del pasado y del presente, tomando como eje el poema *Emazteen Fabore*, para fomentar el desarrollo del pensamiento histórico y la competencia ciudadana. Tras una revisión historiográfica sobre el poema, reflexionamos acerca del potencial del mismo, como contenido escolar, para innovar en la enseñanza de la historia, para finalmente perfilar una secuencia didáctica posible.

Esparru desberdinetako legeek ikastetxeetan hezkidetzaren presentzia areagotzea sustatzen dute. Lan honetan DBHko 2. mailan gauzatzeko proposamen didaktikoa luzatzen dugu. Emazteen Fabore olerkia ardatz hartuta, iraganeko eta egungo genero desberdintasunak lantzeko, pentsamendu historikoaren bidez kompetentzia hiritarra garatze aldera. Olerkiari buruzko birpasa historiografikoa egin ostean, gelaratu daitezkeen eduki horrek historiaren irakaskuntza berritzeko ekar ditzakeen onuren inguruan hausnartzen dugu, eta azkenik, sekuentzia didaktiko posible bat perfilatzen dugu.

Educational laws in different contexts promote a greater presence of coeducational dynamics in schools. In this paper we offer a teaching proposal for 2nd year Secondary School to work on gender inequalities of the past and present, using the poem *Emazteen Fabore*, to encourage the development of historical thinking and citizenship competence. After a historiographical review of the poem, we reflect on its potential, as school content, to innovate in history teaching, and finally outline a possible teaching sequence.

PALABRAS CLAVE GAKO-HITZAK KEY WORDS

Coeducación. Desigualdades de género. Enseñanza de la Historia. Pensamiento histórico. Materiales de enseñanza.

Hezkidetza. Genero desberdintasunak. Historiaren irakaskuntza. Pentsamendu historikoa. Irakaskuntza-materialak.

Gender coeducation. Gender inequalities. History teaching. Historical thinking. Teaching materials.

**Universidad del País Vasco/
Euskal Herriko Unibertsitatea
UPV/EHU
janire.castrillo@ehu.eus

CEIP Otxandio HLHI
aidacastri@gmail.com

* Lan honek Eusko Jaurlaritzaren *Sociedades, Procesos, Culturas (siglos VIII a XVIII)* (IT1465-22) ikerketa-taldearen eta *Violencia y transformaciones sociales en el Nordeste de la Corona de Castilla (1200-1525)* (PID2021-124356NB-I00) proiektuaren dirulaguntza jaso du.

Fecha de recepción/Harrera data: 03-10-2021

Fecha de aceptación/Onartze data: 07-10-2022

1. SARRERA

Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren lorpena egungo gizartearen erronka nagusienetako bat da. Hezkuntzak erronka horrekiko paper garrantzitsua joka dezake, zalantza barik, ikasleriarengan genero desberdintasunekiko kontzientzia kritikoa garatze aldera eta garapen soziala erdieste aldera. Hala, instantzia desberdinetatik berdintasunaren sustapena geroz eta indar handiagoaz planteatzen ari da. Nazioarteko mailan, esaterako, Nazio Batuen Erakundeak Garapen Iraunkorrerako Helburuen Agendako bostgarren helburu gisa finkatua dauka¹.

Halaber, espainiar testuinguruan indarrean dagoen hezkuntza legediak, genero berdintasunaren aldeko apustu argia egiten du. Batetik, *Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación* delakoak, sarreran hezkuntzari egotzen dizkion xedeen artean jasotzen du: “la valoración crítica de las desigualdades, que permita superar los comportamientos sexistas”². Eta 23. artikuluan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren (DBH) etapako helburuen artean honakoa finkatzen du: “respetar la diferencia de sexos y la igualdad de derechos y oportunidades entre ellos”³. Bestetik, *Ley Orgánica 8/2013, de 9 de diciembre, para la mejora de la calidad educativa* delakoak, 1. artikuluan eskatzen du: “el desarrollo, en la escuela, de los valores que fomenten la igualdad efectiva entre hombres y mujeres, así como la prevención de la violencia de género”⁴. Eta aurreko lege horretatik eratorritako *Real Decreto 1105/2014, de 26 de diciembre, por el que se establece el currículo básico de la Educación Secundaria Obligatoria y del Bachillerato* izenekoak, 11. artikuluan DBHren helburu orokorrak zehazterakoan bultzatzen du: “ejercitarse en el diálogo afianzando los derechos humanos y la igualdad de trato y de oportunidades entre mujeres y hombres”⁵. Hau da, genero berdintasuna gizarte plural baterako eta hiritartasun demokratikorako balore komuna izan beharko luke.

Orobat, Euskadin indarrean dagoen 236/2015 Dekretuak, abenduak 22koak, *Oinarrizko Hezkuntzaren kurrikuluma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duenak*, 17. artikuluan honakoak jasotzen ditu:

- a) Emakumeei eta gizonei esleitutako portaera-eredu soziokulturaletan oinarrituta eraiki diren sexuaren araberako aurreiritziak, estereotipoak eta

1 Nazio Batuen Erakundea, *Transformar nuestro mundo: la Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible*, 2015, in <https://bit.ly/37g806E> (kontsulta: 30/09/2020).

2 *Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación*, Boletín Oficial del Estado nº 106, de 04/05/2006.

3 *Idem*.

4 *Ley Orgánica 8/2013, de 9 de diciembre, para la mejora de la calidad educativa*, Boletín Oficial del Estado nº 295, de 10/12/2013.

5 *Real Decreto 1105/2014, de 26 de diciembre, por el que se establece el currículo básico de la Educación Secundaria Obligatoria y del Bachillerato*, Boletín Oficial del Estado, nº 3, de 03/01/2015.

rolak ezabatzea, sexu bateko zein besteko ikasleei beren buruak erabat garatzeko aukerak eskaintze aldera.

b) Emakumeen jakintza eta gizadiaren garapenari egin dioten ekarpen soziala eta historikoa txertatzea, irakatsitako edukiak berrikuz eta zuzenduz, hala dagokionean⁶.

Alabaina, azken dekretu horren II. Eranskina osatzen duen kurrikulum orientatzaileak, DBHko 2. mailan jorratu beharreko Erdi Aroari dagozkion edukien artean, lurralde desberdinen bilakaera politiko-instituzionalean zentratutakoak jasotzen ditu, batik-bat: Erromatar Inperioaren erorketa; euskal lurren, erresuma bisigotiarraren, erresuma frankoaren eta mundu islamiarraren arteko gatazkak; Erdi Aroko monarkien eraketa; gizarte feudalaren ezaugarriak; Behe Erdi Aroko hirien loraldia; etab. Baita garaiko estilo artistiko desberdinen ezaugarriak eta eragintza kulturalako espazioak ere (monastegiak eta Donejakue Bidea, kasu). Guzti horiek, testuliburuetan islatuta agertzen diren oinarrizko edukiak dira⁷.

Didakta batzuen aburuz, gaur egungo eskoletan, testuliburu horiei jarraiki, ikasmaila bakoitzean jorratu ohi diren eduki multzo zabalak, ez du ahalbidetzen historiaren irakaskuntzaren xedeen alde eta konpetentzia sozial eta zibikoaren eskuratzearen alde lan egitea. Izan ere, testuliburuok, izaera positibistadun errelatoa transmititzen dute eta iraganaren ezagutza deskriptibo bat sustatzen dute, iragan horren analisi kritikoa bultzatu barik⁸. Horren ondorioz, aditu batzuek kurrikulumaren interpretazio malguago baten aldeko aldarria egiten dute, irakasleagoa testuliburuaren parrastadetatik askatu eta bere programazioetan ikasleek konpetentzia sozial eta zibikoa garatzeko eraginkorragoak diren edukiak txertatzea errazteko: “muchos de los contenidos de ciencias sociales que deberían estar ligados a la competencia social y ciudadana no aparecen en los manuales escolares que se suelen utilizar”⁹.

Konpetentzia hiritarrarekin lotutako edukien artean, genero desberdintasunek leku garrantzitsua izan beharko lukete¹⁰. Horregatik,

6 236/2015 Dekretua, abenduak 22koa, *Oinarrizko Hezkuntzaren kurrikuluma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena*, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 9, 2016/01/15.

7 Jorge Saíz: “What kind of Medieval History should be Taught and Learned in Secondary School?”, *Imago Temporis. Medium Aevum*, 4, 2010, 357-372 or.

8 Pedro Miralles, Pedro Belmonte: “Historiografía, Historia de las mujeres y enseñanza de la Historia en el Bachillerato”, in María Isabel Vera-Muñoz, David Pérez i Pérez (ed.), *Formación de la ciudadanía: las TIC y los nuevos problemas*, Alicante, AUPDCS, 2004, 619-629 or.

9 Xosé M. Souto, Ramón López Facal: “¿Es la crisis un contenido educativo de geografía e historia?”, *Íber. Didáctica de las Ciencias Sociales, Geografía e Historia*, 84, 2016, 7-13 or.: 8.

10 Antonia García Luque, Matilde Peinado: “LOMCE: ¿es posible construir una ciudada-

eta Erdi Aroko emakumeen historia jorratzeko egindako gomendio batzuen harira¹¹, datozen orrialdeetan genero desberdintasunak pentsamendu historikoaren ikuspuntutik DBHn lantzeko proposamen didaktiko bat perfilatuko dugu. Proposamenak Bernard Etxepareren *Emazteen Fabore* olerkia izango du ardatz, eta *Emakumeen Kereila* delako mugimenduaren baitan sortutako garaiko ideia misoginoekiko eztabaida landuko du, azken hau emakumeenganako diskriminazioaren kontrako mugimendu aintzindari gisa ulertuta.

Hartara, lanaren hasierako atalean, Etxepareren olerkiari buruzko eta *Emakumeen Kereilari* buruzko errebisio historiografiko xumea burutuko dugu. Ondoren, gaiok DHBko klaseetako eduki gisa barnebiltzen duten balio hezigarria aztertuko dugu, ikuspuntu desberdinetatik: emakumeak subjektu historiko gisa integratzeko, pentsamendu historikoa lehen mailako iturriekin lan eginez garatzeko, eta konpetentzia sozial eta zibikoa eskuratzeko genero ikuspegia zertan datzan ikasiz. Amaitzeko, *Emazteen Fabore* olerkia gelartzeko proposamen didaktiko baten gidalerroak aurkeztuko ditugu, eta ondorio sorta bat plazaratuko dugu.

1545ean Bernart de Etxeparek *Linguae Vasconum Primitae* izeneko liburua argitaratu zuen Bordelen. Hala, Behe Nafarroako apaiz horrek euskarazko lehen liburuaren argitalpena egiten zuen. Gai desberdinei buruzko olerki bilduma zen, zeinaren bidez, egileak euskaldunoi bere hizkuntzan otoiz egiteko, zein aisialdian irakurri edo kantatzeko material desberdinak eskaini nahi izan zizkien. Besteak beste, *Doctrina Christina* izeneko katezismo bat jasotzen zuen, baita olerki autobiografiko bat eta maitasun profanoari eskainitako zenbait pieza. Obra hori sorkuntza kulturalaren aldeko testuinguru batean erdietsi zen, Nafarroako Gortetik, eta bereziki Angulemako Margaritaren eskutik, sendoki sustatu baiziren humanismoa, artea eta letrak, ideia erreformistekin batera¹². Ikerlari batzuek Etxeparek Guyenako Eskolako kide batzuekin mantendu zuen harreman pertsonalari egotzi diote euskarazko liburua argitaratzea lortu izana¹³.

2. EMAZTEEN FABORE OLERKIA EMAKUMEEN KEREILAREN TESTUINGURUAN

nía sin la perspectiva de género?”, *Íber. Didáctica de las Ciencias Sociales, Geografía e Historia*, 80, 2015, 65-72 or.

11 Janire Castrillo et al.: “Las mujeres medievales en los libros de Primaria: crítica y propuestas”, *Cadernos de Pesquisa*, 51, 2021, 1-18 or.

12 Jon Oria Osés: “La maravilla del humanismo renacentista en la corte de Navarra durante el siglo XVI”, in *1512: Actas del I Congreso de Historiadores de Navarra = Euskal Herriko Historialarien I. Biltzarreko aktak*, 2010, 123-128 or. Matías Múgica: *Margarita de Angulema: una princesa del Renacimiento*, Pamplona, Gobierno de Navarra, 2015. Conchi Medrano: “Margarita de Navarra”, *Aintzina: revista de genealogía vasca e historia local*, 28, 2019, 57-92 or.

13 Jon Kortazar: “Bernard Detxepare: bidegurutzean”, *Enseiukarreen*, 12, 1996, 29-35 or.

Olerkien artean, bazegoen *Emazteen Fabore* izenekoa. Izenburuak ulertzera ematen zuen gisa, emakumeen izatea eta bertuteak defendatzera bideratuta zegoen. Haritschelharek aipatu bezala, Etxepareren helburua orduko gizartearen mentalitatean presente zeuden idea misoginoei aurrea hartzea zen¹⁴. Horregatik, Iñaki Aldekoa bezalako egileek olerkiaren eta *Emakumeen Kereila* delako mugimenduaren arteko lotura argia dagoela baieztatu dute¹⁵.

Azken hamarkadan, *Emakumeen Kereila* ikerketa esparru garrantzitsua bihurtu da espainiar testuinguruan Emakumeen Historia aztertzen duten artean. XIII mendean sortu eta, egile batzuen arabera, XVIII mende arte iraun zuen mugimendu hori, “emakumeen gutxiagotasun naturala”-ri buruzko diskurtsoarekiko erantzuna izan zen¹⁶. Haien duintasunaren eta arrazoitzeko gaitasunaren defentsa mugimendu bat, Erdi Aroko eta Aro Modernoko jende ikasiaren artean gauzatutako eztabaida intelektualean, bereziki giro kortesuetan¹⁷.

Preseski, Erdi Aroan idea misoginoek leku nabarmena hartu zuten kanon, tratadu eta obra literario askotan, zeintsuetan emakumeak izaki lizun, neurrigabe, berritsu, zalapartatsu edo gezurtiak bezala islatuak izan ziren, aristotelismotik, zuzenbide erromatarretik edota Patristikatik eratorritako argudioak oinarri hartuta¹⁸. Adibidez, Worms-eko Burchard kanonistak bere *Decretum*-ean (circa 1023) hilekoa kutsakorra zela adierazi ostean, emakumeek masturbazioa, bestialismoa eta abortoa

Patri Urkizu: «Bernat Etxeparen bizitza-garaiaz albiste gehiago eta linguae vasconum primitiae (1545)-ren berrirakurketa», *Revista de Lengua y Literatura: Catalán, Gallego y Vasco*, 17, 2012, 203-224 or. Beñat Oyharçabal: “A Note on Literary Historiography: Bernard Etxepare, a Medieval Author?”, in *Linguae Vasconum Primitiae. The First Fruits of the Basque Language, 1545*, Reno: University of Nevada, 2012, XVII-LII or. Aurélie Arcocha-Scarzia; Joseba Andoni Lakarra: “Aspectos de la gramatización antigua de la lengua vasca. Humanismo, reformismo e imprenta (1545-1596)”, *Lengas*, 86, 2019.

14 Jean Haritschelhar: “**Emazteen fabore**”, in VV.AA.: *Euskal Gramatikari eta literaturari buruzko Jardunaldiak XXI. mendearen atarian (I-II)*, vol. 2, Euskaltzaindia, 2003, 113-124 or.

15 Inaki Aldekoa: “Bernard Etxepare: ‘Doctrina Christiana’ y Poesía Amatoria”, *ASJU Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*, 44-2, 2010, 1-40 or.

16 Joan Kelly: “Early Feminist Theory and the “Querelle des Femmes”, 1400-1789”, in *Women, History and Theory. The Essays of Joan Kelly*, Chicago/London, University of Chicago Press, 1984, 65-109 or.

17 Ana Vargas: ““La ciudad de las damas’ de Christine de Pizan: obra clave de la querrela de las mujeres”, in Cristina Segura (koord.), *La querrela de las mujeres. Análisis de textos*, Madrid, Almadayna, 2010, 21-27 or.

18 Robert Archer: *Misoginia y defensa de las mujeres: antología de textos medievales*, Madrid, Cátedra, 2001. Yolanda Beteta: “Representaciones de la sexualidad femenina en la literatura medieval y su influencia en la consideración de las mujeres”, *Arenal*, 16-2, 2009, 213-233 or. M^a Isabel Núñez: “Alteridad y negación histórico jurídica del raciocinio femenino”, in Rosalía Rodríguez, M^a José Bravo (ed.), *Experiencias jurídicas e identidades femeninas*, Madrid, Dykinson, 2010, 417-442 or.

praktikatzeko joera zutela baieztatu zuen¹⁹. Alvaro Pelayok, Avignon-eko Gorteko penitentziariak, berriz, bere *De statu et planctu ecclesiae* (1332) obran emakumeak arriskutsuak zirela agerian uzten zuten 102 arrazoi eskaini zituen, “deabruaren tresnak” eta “akatsaren amak” zirela esanez eta Paradisutik kaleratu izanaren errua haiei leporatuz²⁰.

Mespretxu horien guztien aurrean sortu zen *Emakumeen Kereila*. Ikuspuntu literario hutsetik, honela azaldua izan da *Kereila*: “un movimiento intelectual con el que se relacionan textos que denigran a las mujeres y tienen la respuesta en otros en los que se defienden sus virtudes”²¹. Halere, fenomenoari ikuspegi konplexuago batetik begiratzea badago, eta barnebiltzen duen eztabaida filosofiko, teologiko, zientifiko eta politikoa kontuan hartuta, kontzeptuak printzipio patriarkalei erantzuten ez zioten idatzi orori egin diezaieke erreferentzia. Hala, *Kereila* hautematen den pentsamendu mota litzateke, emakumeen defentsarako oinarri teoriko batetik eraikia.

Eztabaida horretan emakumeen alde egin zuen figura esanguratsuenetako bat Pizango Kristina izan zen, Frantziako Gortearekin lotura estua izan zuen idazlea. *Damen Hiria* (1405) obran emakume bertutetsuen hiri alegoriko bat eszenifikatu zuen, Bibliako zein greziar mitologiako hainbat emakumeren biografiak bilduz eta haien lorpenak azpimarratuz²². *Emakumeen Kereilaren* beste foko garrantzitsu bat Italia izan zen. Bertan, besteak beste, Isotta Nogarolakoak *De pari aut impari Evae atque Adae peccato* (1451) tratatua Adan eta Evak Paradisuko kaleratzean erru maila bera izan zutela planteatu zuen, hain zuzen ere, Eva, izaki ahulagoa izanda, ardua txikiagoa izan zuela argudiatuta²³.

Kereilak Gaztelako Erresuman ere izan zuen oihartzuna, batik bat Alfontso Martinez Toledokoak *Corbacho* edo *Reprobación del amor mundano* (1438) delako obra argitaratu ostean, oso kritikoa izan baizen emakumeekin²⁴. Hori dela eta, XV mendeko 40 hamarkadan emakumeak defendatzen zituzten zenbait obra idatzi ziren, esate baterako: Juan

19 Claude Thomasset: “La naturaleza de la mujer”, in Georges Duby eta Michelle Perrot (ed.), *Historia de las mujeres en Occidente. La Edad Media*, Madrid, Taurus, 1992, 61-92 or.

20 Adriana Valerio: “Introducción. La Biblia en el centro: la *renovatio ecclesiae* y el surgimiento de la subjetividad femenina (ss. XIII-XV)”, in Kari Borresen eta Adriana Valerio (ed.), *La Biblia y las mujeres. Medioevo II (siglos II-XV), Entre recepción e interpretación*, Madrid, Verbo Divino, 2012, 15-48 or.

21 Cristina Segura: “Presentación”, in Cristina Segura (koord.): *La Querrela de las mujeres III. Antecedente de la polémica feminista*, Madrid, Almudayna, 2011, 7-21 or.: 19-21.

22 Ana Vargas: “‘La ciudad de las damas’ op. cit.

23 Margaret King: “Isotta Nogarola, umanista e devota (1418-1466)”, in Ottavia Niccoli (ed.), *Rinascimento al femminile*, Roma-Bari, Laterza, 1991, 3-33 or.

24 Ana Vargas: *La querrela de las mujeres. Tratados hispánicos en defensa de las mujeres*. Madrid, Fundamentos, 2016.

Rodríguez Padrongoaren *Triunfo de las donas*²⁵; Diego Valerakoaren *Tratado en defensa de virtuosas mugeres*²⁶; edo Alvaro Lunakoaren *Libro de claras y virtuosas mugeres*²⁷. Emakume batzuek ere parte hartu zuten eztabaidan, hala nola, Teresa Kartagenakoak bere *Admiracion operum Dey*-rekin, edota Isabel Villenakoak *Vita Christi*-rekin²⁸.

Erdi Arotik Aro Modernorako trantsizioan, literatura demonologikoa suspertu egin zen, eta *Malleus Maleficarum* (1486) bezalako obra misoginoekin, emakumezko sorgin gaiztoaren irudia sozializatu egin zen²⁹. Orobat, Aro Modernoaren hastapenetako moralista askok “emakume ona”-ren eredu ideal bat proposatzen hasi ziren haien obretan, emakumeei kastitatea, obediencia, erukia edota neurritasuna bezalako kualitateak izatera bultzatuz; Juan Luis Vives-ek *Instrucción de la mujer cristiana*-n (1523) egin zuen moduan, adibidez³⁰.

Testuinguru horretan kokatzen da *Emazten Fabore* olerkia, hain zuzen ere, emakumeen izaera on edo txarrari buruzko eta haien gaitasun ezberdinen faltari nahiz haien bertuteei buruzko eztabaidan. Olerkian Bernard Etxeparek, alde batetik, emakumeei buruz gaizki ez mintzatzeko eta kritikatu aurretik pentsatu eta isiltzeko eskaera luzatzen zuen, garaiko *intelligentsia*-ren parte ziren figura askori zuzenduz. Beste alde batetik, orduko emakumeen bertute batzuen goraiapamena egiten zuen argudio lerro desberdinak erabiliz. Seme-alabak erditzean eta geroko hazkuntzan prozesuan zuten paper garrantzitsuari men egiten zion, eta baita egunerokotasunean eskaintzen zituzten zaintza lanei ere (gaixo zeudenei arreta ematen, ordena eta garbitasuna mantentzen...). Bestalde, sarritan gizonak zirela pekatuaren sorburu baieztatzen zuen. Halaber, Amabirginarekiko Jainkoak zuen estima aipatzen zuen. Eta amaitzeko, emakumeen gorputz biluziek ematen duten plazerrari ere egiten zion erreferentzia.

25 Ana Vargas: “Sobre los discursos políticos a favor de las mujeres (El Triunfo de las donas de Juan Rodríguez de la Cámara)”, *Arenal*, 20(2), 2013, 263-288 or.

26 Florence Serrano: “Del debate a la propaganda política mediante la querrela de las mujeres en Juan Rodríguez del Padrón, Diego de Valera, y Álvaro de Luna”, *Talia dixit: revista interdisciplinar de retórica e historiografía*, 7, 2012, 103-106 or.

27 M^a Jesús Fuente: “Voces profemeninas en la querrela de las mujeres: Álvaro de Luna y el Libro de las claras y virtuosas mujeres”, in Cristina Segura (koord.), *La querrela de las mujeres. Análisis de textos*, Madrid, Almadayna, 2010, 105-129 or.

28 M^a del Mar Graña: “Mariología, reginalidad y poder en Isabel de Villena. Una teoría política femenina del siglo XV”, *Mirabilia, Eletronic Journal of Antiquity & Middle Ages*, 22(1), 2016, 96-127 or.

29 Yolanda Beteta: “De la costilla de Adán a concubina del Diablo. La demonización de los saberes y del cuerpo femenino en el Malleus Maleficarum”, in Cristina Segura (ed.), *La Querrela de las mujeres III, antecedentes de la polémica feminista*, Madrid, Al-Mudayna, 2011, 45-73 or.

30 Juan Luis Vives: *Instrucción de la mujer cristiana*, 1523, Biblioteca Valenciana Digital (kontsulta 08-01-2022): <https://bivaldi.gva.es/es/corpus/unidad.do?posicion=1&idCorpus=1&idUnidad=10066>

Historiaren irakaskuntzaren paradigma berri baten beharra dagoen honetan, *Emazten Fabore* olerkiaren bidez *Emakumeen Kereila* DBHko gelatan tratatzea urrats batzuk ematea erraz dezake. Batik bat hiru norabideetan: 1) emakumeak subjektu historiko gisa integratzeko gelarazten den errelatoan, 2) iturri historikoekin lan egitea ahalbidetuz pentsamendu historikoa garatzeko, eta 3) genero desberdintasunen gaia mahai gainean jartzeko eta konpetentzia hiritarraren jabekuntzan laguntzeko.

3.1. Emakumeen historiarekin lotutako edukien integrazioa

Egungo ikastetxeetan irakasten den historiak ez ditu apenas emakumeei buruzko edukiak jasotzen. Azken urteetan egindako ikerketen arabera, testuliburuak emakumezko pertsonai askoz gutxiago aipatzen dituzte³¹. Ikerketok ikas-materialek emakumeen paper, espazio eta funtzioak ahazten dituen diskurtso androzentriko bat luzatzen dutela baieztatzen dute, historiako etapa desberdinetan³². Horrek, emakumeek bilakaera historikoan ekarpen aipagarriak egin ez dutelaren ideia indartu dezake ikasleen artean, eta kolektibo gisa emakumeek izandako esangura historikoa deuseztatu dezake³³.

Erreferente femininorik apenas jasotzen ez duen errelato hori partziala da. Izan ere, 70. hamarkadan emakumeen historia garatzen hasi zenetik, diziplinaren baitan sortu den produkzio zientifikoa oso mamitsua izan da³⁴. “Irakatsitako historiak” historiografiaren ekarpen horiek bere egin beharko lituzke. Ez bakarrik esparruren batean nabarmendu ziren emakumeak integratuz, baizik eta emakume arrunten eginkizun historikoari ere arreta eskainiz; haiek gabe ezin baita gure iragana azaldu.

Zentzu horretan, *Emazten Fabore* olerkia gelaratzek onura nabariak ekar ditzake. Batetik, Emakumeen historiarekin lotutako eduki bat integratzeko aukera ematen duelako Erdi Aroaren irakaskuntzari

31 *Maria Vaíllo*: “La investigación sobre libros de texto desde la perspectiva de género: ¿hacia la renovación de los materiales didácticos?”, *Tendencias Pedagógicas*, 27, 2016, 97-124 or.

32 *Antonia Fernández Valencia*: “Las mujeres como sujeto histórico: género y enseñanza de la historia”, *Didáctica de las ciencias experimentales y sociales*, 18, 2005, 5-24 or. *Carole L. Hahn*, *Jean Bernard-Powers*, *Margaret S. Crocco*, *Christine Woyshner*: «Gender equity in social studies», in *Susan Klein* (ed.): *Achieving gender equity through education*, Mahwah, Lawrence Erlbaum, 2007, 335-357 or.

33 *Joan Pagès*, *Edda Sant*: Las mujeres en la enseñanza de la Historia: ¿hasta cuándo serán invisibles?. *Cadernos de Pesquisa do CDHIS*, 25(1), 2012, 91-117 or. *Mardi Schmeichel*: “Women made it a home”: representations of women in social studies”, *Pedagogies: An International Journal*, 9(3), 2014, 233-249 or.

34 *Cristina Segura*: “Cómo construimos la Historia de las Mujeres desde las Universidades españolas”, *Revista de Historiografía*, 22, 2015, 255-271 or.

3. OLERKIAREN POTENZIAL DIDAKTIKOA

dagokionez, egun existitzen diren gabeziak arinduz: *Emakumeen Kereila*. Bestetik, *Emakumeen Kereila* mugimenduaren nondik norakoak lantzerakoan, emakume batzuek iraganean aldarriak egin ziztuten agente historikoak izan zirela egiaztatzeko eta erreferenteak eraikitzeko parada ematen duelako³⁵.

3.2. Lehen mailako iturriak eta pentsamendu historikoaren garapena

Emazten Fabore olerkiaren eta *Emakumeen Kereilaren* bidez, pentsamendu historikoaren garapenerako gakoak eskaini ahal zaizkie ikasleei. Alde batetik, lehen mailako iturriekin lan egiterakoan, historialarien lanean trebatu daitezkeelako. Izan ere, olerkia testu historiko bat izaki, garai berdineko beste batzuei erantzuna ematen diena, ikasleak, hura aztertu eta bere esanahiaren inguruko interpretazioa eraikitzen behartzen ditu, arrazoiketa eta pentsamendu analitikoaren garapena sustatuz³⁶. Iturriekin lan egitera bideratutako ikas- irakas-estrategia horrek, ikerketa historikoaren esentzia jartzen du agerian, eta horregatik, hezkuntza testuinguruetan erabiltzeko balioetsia izan da³⁷.

Beste alde batetik, olerkiaren bidez pertsonai historiko baten ahots zuzena berreskuratu egiten da, iraganarekiko hurbilpen gizatiarrago bat gauzatzea bermatuz. Modu horretan, enpatia historikoa sustatzea erraztu egiten da, iraganeko pentsaera eta praktikei zentzua emateko eta ulertzeko elementu garrantzitsuak izaki, ikasleak olerkiaren egilea bere testuinguru historikoan kokatu ostean³⁸.

Bernart Etxeparek olerkian zehar burutzen duen emakumeen izaera eta bertuteen aldeko argudiaketak, bere garaiko mentalitateko zenbait alor islatzen ditu. DBHko klaseetan egokiro landua eta ulertua izateko, hainbat urrats jarraitu beharko liratezke: a) pertsonaiaren aurkezpena eta bere testuinguraketa historikoa burutzea; b) argitaratu zuen olerkiaren

35 *Kereilaren* baitan sortutako polemikan haien obra literario eta trataduekin parte hartu egin zuten emakumeak Erdi Aro amaierako elite sozialen parte izan ziren. Beraz, aldarrien subjektu, jatorri sozial zehatz batetako emakumeak izan ziren bakarrik. Alabaina, eztabaidaren objektu emakume guztiak izan ziren, feminitatearen esentziaren inguruko kezka izan zelako ezbaian jarri zena (emakumeen arraziotzeko gaitasuna edota emakumeen ontasun/gaizotasun naturala, beste batzuen artean).

36 Raquel Sánchez, Pedro Miralles: "Pensar a las mujeres en la historia y enseñar su historia en las aulas: estado de la cuestión y retos de futuro", *Tempo e Argumento*, 6-11, 2014, 278-298 or. Cosme J. Gómez, Jorge Ortuño, Pedro Miralles: *Enseñar ciencias sociales con métodos activos de aprendizaje: reflexiones y propuestas a través de la indagación*, Barcelona, Octaedro, 2018.

37 Peter Seixas: "A Model of Historical Thinking", *Educational Philosophy and Theory*, 49(6), 2017, 593-605 or.

38 Jörn Rüsen: "Forming historical consciousness towards a humanistic history didactics", *Antiteses*, 5(10), 2012, 519-536 or. Peter Seixas: "A History/Memory Matrix for History Education", *Public History Weekly*, 4(6), 2015.

irakurketa, ulermena eta haren inguruko ikerketa egitea; c) ikasitakoa komunikatzea; eta d) iraganaren eta egungo garaiaren arteko alderaketa egitea, pertsonaia historikoaren usteak, jokabideak eta sentipenak ikaslegoaren bizipenekin alderatuz³⁹.

Hala ikaslegoaren konexio afektiboa lortzeko garrantzitsua da olerkia genero desberdintasunen ikuspuntutik eramatea Historiako gelara, aldaketa-iraupena denbora nozioetan sakontze aldera. Garrantzitsua da, halaber, iragana eta gaur eguna alderatzea, ahal dela, ikaslegoarengan eragina duten egoerak ardatz hartuta, aurrekari historikoetan sakontzeko.

3.3. Genero desberdintasunak eta konpetentzia hiritarraren jabekuntza

Emazteen Fabore olerkiak, eduki kurrikular gisa, Erdi Aroa edota Aro Modernoa garaiak Historiaren irakaskuntzaren xedeen arabera lantzea ahalbidetuko luke. Hau da, inguruko errealitatea ulertzeko ezagutza propioak eraikitzea, munduan norbere lekua aurkitzeko eta, hiritar gisa, partehartze aktibo eta demokratikoa lortzeko⁴⁰. Olerkia gai esanguratsu bati buruz hausnartzeko eta eztabaidatzeko problematizatu daitekeen edukia da eta: genero desberdintasunak. Hauek, iraganean eta orainean, iritzi kontrajarriak sortzen dituzte eta ikasleak bere posizionamendu propioa eraikitzera bultzatzen dituen gaia da.

Pil-pilean dauden gizarte gai eztabaidagarriek Gizarte Zientzien klaseetan izan behar duten leku garrantzitsua askotan azpimarratu izan da. Izan ere, ikasleak bizitza errealer aurreratu hurbiltzea errazten dute, haien motibazioa eta parte-hartze maila handituz⁴¹. Gainera, batio desberdinei buruzko askotariko iritziak barnebiltzen dituztenez, ikasleen pentsamendu kritikoa eta argumentaziorako gaitasunean eragin positiboa izan ohi dute⁴².

Genero desberdintasunak esparru horretan koka daitezke. Horregatik, gure gizartean daudenak, nahiz Erdi Aro amaieran zeudenak tratatzea

39 Jason L. Endacott, Sarah Brooks: "An Updated Theoretical and Practical Model for Promoting Historical Empathy", *Social Studies Research & Practice*, 1, 2013, 41-58 or.

40 Joan Pagès: «La educación para la ciudadanía y la enseñanza de la historia: cuando el futuro es la finalidad de la enseñanza del pasado», in Rosa Mª Ávila, Rafael López, Estibaliz Fernández De Larrea (ed.): *Las competencias profesionales para la enseñanza-aprendizaje de las Ciencias Sociales ante el reto europeo y la globalización*, Bilbao, AUPDCS, 2007, 205-216 or.

41 José Monteagudo, Juan Ramón Moreno (ed.): *Temas controvertidos en el aula. Enseñar historia en la era de la posverdad*, Murcia: Univ. de Murcia, 2019.

42 Francisco Javier Merchán, Francisco F. García: "El tratamiento de problemas de nuestro mundo en la enseñanza obligatoria", *Aula de Innovación Educativa*, 61, 1997, 9-12 or. Ramón López Facal, Víctor M. Santidrián: "Los «conflictos sociales candentes» en el aula", *Íber Didáctica de las Ciencias Sociales, Geografía e Historia*, 69, 2011, 8-20 or.

Emazteen Fabore olerkia eta *Emakumeen Kereila* medio, aukera interesgarria izan daiteke. Are gehiago, zenbait ikerlanek egungo ikasleek genero ikuspuntua aplikatzeko nozioei buruz dituzten ezagutza eskasak agerian utzi dutenean, izan Oinarrizko Hezkuntzan⁴³, edo izan unibertsitatean ikasten ari diren etorkizuneko irakasleen kasuan⁴⁴.

Horregatik, konpetentzia hiritarraren osagaietako bat den genero desberdintasunen inguruko kontzientzia kritikoa garatzeko lan egiten jarraitu beharra dago eskoletan. Eta, norabide horretan, *Emazten Fabore* eta *Emakumeen Kereilaren* gaiak, ikasle goaren begirada kritikoa hezteko eduki baliagarriak izan daitezke. Izan ere, iraganeko gizon eta emakumeen arteko desorekak aztertuz, egun existitzen direnak antzematea errazten da, eta egungoak antzemanaz, etorkizunean horiek desagertzeko egin beharreko aldaketan inguruan gogoeta egitea ahalbidetzen da⁴⁵.

4. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA: EMAZTEEN FABORE

Emazteen Fabore olerkia ardatz izango duen proposamen didaktiko baten jarraibide orokorrak luzatzen ditugu atal honetan, DBHko 2 mailan implementatzeko, Erdi Aroaren lanketa egiten denean. Olerki horren zati batzuk aztertu eta ikasleek bere esanahiaren inguruan gogoeta egin beharko dute, azken produktua izango den atzo eta gaurko genero desberdintasunei buruzko eztabaidan parte hartzeko. Garrantzitsua izango da, proposamena gauzatu aurretik, ikasleek Erdi Aroari buruzko oinarrizko ezagutza batzuk izatea, *Emakumeen Kereila* sortu zeneko testuinguru historiko orokorra ezagutu dezaten. Zehazki, proposamen hau gelan gauzatu baino lehen, komenigarria izango da ikasleek honako edukietako batzuk landu izana: Erdi Aroaren kontzeptua eta periodizazioa, feudalismoa, botere politikoa Europa feudalean, Erdi Aroko ekonomia, gizarte estamentalak, eta Nafarroako erresuma eta euskal lurraldeen ezaugarriak europar estatuak eratzekeo prozesuan.

4.1. Lotura kurrikularra

Hasteko eta behin, arestian aipatu den egungo EAEko eskola kurrikulum-ean Konpetentzia sozial eta zibikoaren parte gisa

43 Janire Castrillo et al.: “¿Son las mujeres sujeto histórico para el alumnado de ESO? Un estudio de caso”, *Clio. History & history teaching*, 45, 2019, 11-29 or.

44 M^a Consuelo Díez-Bedmar: “Enseñanza de la Historia en educación preuniversitaria y su impacto en la formación de identidades de género, repercusiones en la Universidad”, *Clio: History and History Teaching*, 41, 2015. Delfin Ortega: *Las mujeres en la enseñanza de la historia y de las ciencias sociales*, Tesis de Doctorado, Barcelona, Universitat Autònoma, 2017.

45 Sebastián Molina-Puche, et al.: “Enseñanza de la historia, creación e identidades y prácticas docentes”, *Profesorado: revista de currículum y formación del profesorado*, 21(2), 2017, 331-354 or.: 335.

aipatzen diren zenbait osagaien lorpenera fokatuta dago egiten dugun proposamena. Osagai horiek, bereziki, ikasleek egungo gizartearen eraketan, antolamenduan eta aniztasunean erreparatzean datzate, bizi duten mundua ulertzeko eta gizartea hobetzeko tresnak eskuratzeko.

Bestalde, EAEn indarrean dagoen kurrikulua-ak DBHko etaparako markatzen dituen zenbait helburu erdiesteko baliagarria da proposamen didaktikoa. Hala nola, prozesu historikoak espazioan eta denboran kokatzea gizateriaren bilakaeraren ikuspegi propioa izateko eta aldaketak eragiteko gaitasunari buruzko kontzientzia kritikoa izateko. Eta baita egungo gizartearen arazoez jabetzea eta haien jatorri historikoaz, egoerak ebaluatuz, ekintza alternatibo eraginkorrak proposatzeko.

Kurrikulumak DBHko 2 mailarako finkatzen dituen edukien arteko batzuk ere tratatzen ditu proposamenak. Esate baterako, lehen mailako iturriekin lan egitea, iraganeko eta egungo gizartearen ezaugarriak alderatzea, enpatia historikoa agertzea, gizon eta emakumeen paper historikoa balioestea, sexismoa baztertzea eta Erdi Aroko kultura ezagutzea.

Azkenik, 2 DBHrako markatzen diren ebaluazio-irizpide eta ebaluazio-adierazle batzuk ere asebetetzeko parada ematen du proposamenak. Besteen artean, honako hauek aipa daitezke: dokumentu historikoak kritikoki aztertzea, emakume eta gizonen artean dauden desberdintasun nagusiak deskribatzea eta horien kausak identifikatzea, edota emakumezkoen borrokaren historiak egun duen eragina ezagutzea (1. Taula).

1. Taula. Proposamen didaktikoaren lotura kurrikularra.

KONPETENTZIA SOZIAL ETA ZIBIKOA	
Osagaiak	<p>2. Norberaren gizartea ezagutzea, eta bereziki haren iraganeko eta egungo eraketa, antolamendua eta funtzionamendua (...).</p> <p>3. (...) aintzat hartzea garaiko gizarteetako aniztasun soziala eta kulturala, (...) gainerako pertsonekin harremanetan jartzeko era berrien bila aritzea, gizartea hobetu eta jasangarri bihurtzeko.</p> <p>6. Bizi duten mundua ulertzeko behar dituzten ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak eskuratzeko (...)"</p>

ETAPAKO HELBURUAK	
3. helburua	Jakitea zein izan diren Euskal Herriarentzat gertaera eta prozesu historiko garrantzitsuenak, direla tokikoak, direla mundu-mailakoak, eta denboran eta espazioan kokatzea. Horren helburua da gizateriaren bilakaeraren ikuspegi propioa eta globala izatea eta aldaketak eragiteko gaitasunari buruzko kontzientzia kritikoa izatea.
8. helburua	Gaur egungo gizartearen arazoak zein diren jakitea, haien jatorri historiko-sozialak aztertuz, eta errealtateak eta egoerak ebaluatuz. Horren guztiaren helburua da haiekiko iritzi pertsonal kritikoa eta arrazoitua izatea, eta ekintza alternatibo eraginkorrek sustatzea eta abian jartzea, zenbait eskalatan, pertsonen arteko eta gizarte-taldean arteko harremanak hobetzeko eta baliabide naturalak arduraz erabiltzeko.
2 DBH-KO EDUKIAK	
1. multzoa: eduki komunak	<ul style="list-style-type: none"> - Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea. - Lehen mailako iturrietatik garrantzizko informazioa lortzeko, erregistratzeko eta tratatzeko jarraibideak. -Gizarte historikoen eta egungo gizartearen arteko desberdintasun eta antzekotasunak identifikatu, aztertu eta konparatzeko teknikak. -Gaur egungo egoera garrantzitsu baten sustrai historikoak ondorioztatzeko jarraibideak. - Gizon eta emakumeek Historiaren subjektu gisa betetzen duten zeregina balioestea. - Enpatia historikoa azaltzea, eta iraganaren eta orainaren arteko harremanak ezartzea.
2. multzoa: biztanleria eta gizartea	-Desberdintasun sozial eta gatazken eragileak: gutxiengoak, etorkinak, baztertutako taldeak, sexismoa, arrazakeria, etnia- eta erlijio-gatazkek eta abar, eskala desberdinetan, tokian tokiko egoerarekin hasi eta mundukoarekin buka.
3. multzoa: Erdi Aroko gizartea	-Erdi Aroko kultura eta artea.

2 DBHKO EBALUAZIO IRIZPIDEAK ETA ADIERAZLEAK	
2. irizpidea	<p>Euskal Herriko, Espainiako eta Europako egungo gizarteen ezaugarri bereizgarriak aztertzea, gizarte talde askok osatzen dituztela ohartzea, eta irizpide kritikoz aztertzea immigrazioak dakarren aniztasun-handitzea.</p> <p>Adierazlea:</p> <p>-Emakumezkoen eta gizonezkoen artean dauden bereizketa nagusiak eta horien kausak identifikatzen eta deskribatzen ditu.</p>
4. irizpidea	<p>Gizarteari buruzko informazioa (historikoa, demografikoa eta ekonomikoa) bilatzea, erregistratzea eta egoki tratatzea, eta lortu nahi den helbururako iturri egokienak erabiltzea (bibliografia, estatistikak, dokumentazioa, etab.), informazioaren teknologia berriak barne.</p> <p>Adierazlea:</p> <p>-Dokumentu historikoak kritikoki aztertzen ditu ezarritako jarraibide batzuei jarraiki.</p>
7. irizpidea	<p>Gertaera eta prozesu historiko garrantzitsuen arrazoiak eta ondorioak identifikatzea, haien artean loturak egitea, eta gizarte-gertaerek hainbat arrazoi izan ditzaketela ohartzea.</p> <p>Adierazleak:</p> <p>-Gertaera edo prozesu historiko garrantzitsu batean eragina duten faktoreetako batzuk identifikatzen ditu, haien izaera zehaztuz eta haien artean harremanen bat ezarriz.</p> <p>-Feminismoaren eta emakumezkoen borrokaren historia eta horrek gizartean duen eragina ezagutzen du.</p>

4.2. Helburu didaktikoak

Aurreko puntuan zehaztutako markotik abiatuta, *Emazteen Fabore* izeneko proposamen didaktikoak bilatuko luke *Emakumeen Kereila* delako debatearen protagonista batzuen testuekiko gerturaketa egitea, Erdi Aro amaierako emakumeek pairatzen zituzten diskriminazio mota batzuk ezagutzeko; eta diskriminazio horiek egungo genero desorekekin alderatzea, gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko kontzientzia kritikoa sustatzeko. Hori horrela, honako helburu didaktikoak lortzera bideratuta legoke proposamena:

1. *Emakumeen Kereila* delako mugimendua ezagutzea, *Emazten Fabore* olerkia medio, Erdi Aroaren amaieran emakumeei buruz existitu ziren iritzi kontrajarriak aintzat hartzeko.
2. Erdi Aroaren amaieran emakumeek pairatu zituzten genero diskriminazioei buruzko nozioak eskuratzea, iturri historikoetatik inferentziak eginez.
3. Iraganeko eta egungo gizarteetan existitu diren gizon eta emakumeen arteko desorekei buruzko iritzi kritikoa izatea eta genero berdintasunarekiko jarrera proaktiboa agertzea, debate batean parte hartuz.

4.3. Irakas-estrategiak eta jardueren sekuentzia

a. Hasierako fasea: Erdi Aroko emakumeen errealitatea bistaratz

Lehenik, interbentzioa aurkeztu egingo da gelan. Jarraian, Erdi Aroaren amaieran, erresuma kristauean emakumeek bizi zuten errealiterata gerturatzeko bideo bat ikusiko da⁴⁶. Bideoan, garai hartan emakume “on” bat izateko izan beharreko ezaugarriak zeintzuk ziren azaltzen da, eta baita emakume “txar” bat kontsideratua izateko izan beharrekoak ere. Bideoa ikusi ostean, irakasleak galdera batzuk planteatu ditzake talde handian, Erdi Aro amaierako emakumeen akzio markoa eta jarrera idealak edo mespretxatuak zeintzuk ziren argi gera dadin.

Ondoren, hasierako fasea ixteko, *Emakumeen Kereilaren* aintzindarizat hartua izan ohi den Kristina Pizangoa nor izan zen argitzeko informazio bilaketa egingo dute ikasleek, irakasleak emandako webgune eta blog batzuen zerrenda kontsultatuz eta Internetetik informazioa eskuratuz⁴⁷.

b. Garapen fasea: lehen mailako iturriak interpretatz

Garapen fasea abiatzeko, garaiko mentalitate misoginoaren nondik norakoak utzi nahi dira agerian. Horretarako ikasleek, lehenik bakarka eta gero 3-4 kidez osatutako lan-taldeetan, garaiko hiru pentsalariren testuak irakurri egingo dituzte (2 taula)⁴⁸:

46 Álava Medieval: “Arquetipos de buenas y malas mujeres en la Edad Media” (2020). https://www.youtube.com/watch?v=rat4q4y_dK8 (21,18 min)

47 Webgune interesgarriak izan daitezke, adibidez: Arreguias (<https://www.arteguias.com/biografia/christinedepisan.htm>) edota National Geographic (https://historia.nationalgeographic.com.es/a/christine-pizan-feminista-siglo-xv_14729).

48 Iturria: Robert Archer: *Misoginia y defensa de las mujeres: antología de textos medievales*, Madrid, Cátedra, 2001, 41, 33-34, 271 or.-etatik itzulia.

2. Taula. Ideia misoginoak islatzen dituzten testuak.

1	<p>Pere Torroella <i>Coplas de las calidades de las donas o Maldezir de las mugeres</i> (1458):</p> <p>“Emakumea gizon inperfektua deritzon animala bat da, bero natural onaren gabezia sortua; eta hemen bere gaitzak eta onura ezak biltzen dira”.</p>
2	<p>Giovanni Boccaccio <i>Corbaccio</i> (1355 aldera):</p> <p>“Emakumea oso berritsua da, eta hau arau orokorra da: ez dago emakumerik ez duenik hitz egin eta entzuna izatea nahi. Eta ez ohi du uzten beste batek bere aurrean hitz egin dezan; eta egunak urtebete iraungo balu, ez litzateke hitz egiteaz nekatuko (...). Beti daude hitz egiten, gainerakoen gauzei buruz: hura nola bizi den, zer daukan, nola dabilen, nola ezkondu zen, nola bere senarrak gaizki maite duen, nola berak merezi duen, nola elizan zerbait entzun zuen (...)”.</p>
3	<p>Andrés el Capellán <i>De amore. Tratado sobre el amor</i> (XII. mendea):</p> <p>“Emakumea ez da bakarrik naturalki berekoia, baita inbidiatsua, madarikatzailea, lapurra, bere sabelaren esklabua, inkonstantea, bere hitzekin inkonsekuentea, desobedientea, debekatuarekiko bihurria, harrokeriaren akatsaz orbandua, handiustezalea, gezurtia, mozkortia, sekretu bat gordetzeko ezgaia, lizunegia, bizio guztietarako prestu eta gizon batengatik maitasuna sentitzeko ezgaia”.</p>

Irakasleak gogoeta labur bat sustatzeko honako galderak plateatuko ditu talde handian:

- Zer iruditzen zaizkizue testu hauetan agertzen diren emakumeei buruzko baieztapenak?
- Uste al duzue egia zela Erdi Aroko emakumeak lapurrak, lizunak edota gezurtiak zirela?
- Zergatik esango ote zituzten egile horiek horrelako gauzak?
- Uste al duzue garai horretan beste era batera pentsatuko zuten pertsonak egon zirela?

Ondoren, ikasleek *Emazten Fabore* olerkiaren pasarte batzuk irakurriko dituzte, hasieran bakarka eta gero 3 edo 4 ikaskidez osatutako lan taldeetan (3 taula). Olerkiaren testuingurua hobeto ulertze aldera,

irakasleak, testuan agertzen ez diren datu batzuen bilaketa burutzea eskatuko die ikasleei: Nor izan zen Bernad Etxepare? Zein liburuan agertzen da *Emazteen Fabore* olerkia? Zerk egiten du berezi liburu hori?

3. Taula. Emazteen Fabore olerkiaren pasarteak.

EMAZTEEN FABORE

Bernad Etxepare (1545)

(...) Anitz gizon ari bada andrez gaizki erraiten,
arhizki eta desoneski baitituzte aipatzen,
ixilika egoitia ederrago litzate,
andrek gizoneki bezi hutsik ezin daidite.

(...) Balentria sinplea da andren gaitzerraitea,
bat gaitzerran nahi badu oro bardin sartzea.
Ixil ladin nahi nuke halako den guzia,
damu gaitzik emazteak hari eman dithia.

Andren gaitzerraile orok behar luke pentsatu
bera eta bertze oro nontik ginaden sorthu.
Ama emazte luien ala ez nahi nuke galdatu,
amagatik andre oro behar luke goratu.

(...) Haren eskuz osoan behar soinera eta jatera.
Eri denean andre gabe galdu gizon egurra.
Hil badadi, hura nola, nor doake gainera?
Ordu oroz behar tugu, ezta heben zer duda.

Emazterik ezten lekuian eztakusat plazerik,
ez gizona ez etxia behin ere xahurik.
Etxian den gauza oro gaizki erreglaturik,
parabizuan nahi enuke emazterik ezpalitz.

(...) Nik eztantzut emaztiak bortxaturik gizona,
bana bera zoraturik andreari darraika.
Zenbait andre hel baledi oneriztez hargana,
zein gizonek andreari emaiten du ogena?

Jeinkoak emaztea maite mundu oroz gainetik
zerutikan jaitsi zedin hartaz amaturik,
emaztiak ezarri du gure anaierik,
andre oro laudatzeko haren amorekatik.

Irudi zait, emaztia dela gauza ezta,
donario guzietan guziz gauza emia,
gaoaz eta egunaz ere badu plazer handia,
hartzaz gaizki erraitea bilania handia. (...)⁴⁹.

Olerkiaren analisia errazteko, testuan zehar informazioa lokalizatzeke eta antolatzeke txantiloia izango du lan-talde bakoitzak. Orobat, Iparraldeko euskalkian idatzita dagoenez, termino batzuk argitzeko irakaslearen laguntza beharko dute.

c. Komunikazio fasea: emaitzak partekatuz, ezagutzak eraiki

Lan talde bakoitzak egin duen olerkiari buruzko analisiaren emaitzak partekatuko ditu talde handian. Nahi baldin bada, poster batean islatzea eskatu ahal zaie eta gelako horman jartzea. Irakaslearen laguntzaz, talde bakoitzak egiten dituen ekarpenak jasoko dira arbelean. Horrela, olerkiaren testuinguru historikoari buruzko, egileari buruzko eta jasotzen dituen idea nagusiei buruzko puntu komunak laburbilduko dira. Talde handian honako galdera hauek planteatu daitezke:

- Zer uste zuen Bernad Etxeparek emakumeei buruz gaizki esaka ibiltzen ziren pertsonen inguruan?
- Nortzuk hitz egiten zuten txarto emakumeei buruz?
- Emakumeen zein ezaugarri goraiatzen zituen Etxeparek? Zerrendatu emakumeak defendatzeko erabiltzen dituen argudioak.
- Zein desberdintasun dago egile honek emakumeei buruz duen iritziaren eta aurretik irakurri ditugu beste 3 pentsalarien iritziaren artean?

d. Transferentzia fasea: iraganeko protagonistekiko konexio afektiboa eta eztabaida

Fase honetan, helburua izango da iraganaren eta egungo errealitatearen arteko alderaketa egitea, genero desberdintasunak ardatz hartuta, eta desorekekiko arbuioa adieraztea. Aldaketa/jarraikotasuna nozioak landu daitezke eta baita iraganeko protagonistekiko enpatia. Garrantzitsua izango da ikasleak gaur egungo gizartearen ematen diren emakumeen diskriminazio egoerak identifikatu eta ebaluatzea, eta debate batean parte-hartzea beren usteak plazaratzeko.

Hasieran, irakasleak gaur egungo gizartearen dauden genero desberdintasunak islatzen dituzten berriak eramango ditu gelara

150 ⁴⁹ Iturria: Patricio Urquizu: Poesía Vasca. Antología bilingüe, Madrid, UNED, 2013, 166-171 or.

eta lan-talde bakoitzari bat eman eta aztertzea eskatuko dio. Berriok eguneratutakoak izan behar dira eta askotariko gaiak trata ditzakete: biolentzia matxista, sexu-erasoak, soldata arrakala, erabaki-guneetan emakumeek izan ohi duten errepresentazio txikiagoa, emakumezko pertsonai historikoen/artisten/kirolarien ikusezintasuna, etab. Behin berriak aztertuta, talde handian partekatuko du lan-talde bakoitzeko ordezkariak testuan esaten dena.

Ondoren, orain arte landutakoari buruz hausnartzeko eta sintesi lana egiteko, Erdi Aro amaierako gizartean zeuden eta egungo gizartean dauden genero desberdintasunak alderatzeko laburpen-taula bat betetzea eskatu zaie ikasleei (4. taula):

4. Taula. Erdi Aro amaierako gizartean zeuden eta egungo gizartean dauden genero desberdintasunen alderaketa.

	Erdi Aro amaierako gizartea	Egungo gizartea
Zein esparrutan antzematen dira emakumeekiko diskriminazioak?		
Zein argudio mota erabiltzen ziren emakumeak defendatzeko?		

Amaitzeko, iraganeko eta egungo genero desorekei buruzko solasaldia burutuko da talde handian. Irakasleak, eztabaida sustatzeko, honako galderak lutzatuko ahal dizkie ikasleei, lehenik banakako gogoeta egin dezaten, eta gero gela osoaren aurrean haien usteak komenta ditzaten:

- Erdi Aroaren amaieran, emakumeak gutxiesten zituzten pertsonak zeuden?
- Zer aldarrikatzen zuten beste persona batzuek diskurtso misogino horien kontra?
- Eta gaur egun emakume eta gizonen artean desberdintasunak existitzen dira? Zeintzuk?
- Ba al dago genero desberdintasunen kontra egiten duen mugimenduren bat?
- Beharrezkoa ote da?
- Zer da zuretzat genero berdintasuna eta nola lortuko da?

DBHko 2. mailan Erdi Aroa lantzeko bideratuta dauden testuliburuak jasotzen dituzten eduki historikoak izaera posibista duen errelato baten isla dira. Hartara, historiaren irakaskuntzaren xedeak eta konpetentzia sozial eta zibikoa garatzeko eraginkorrakoak izan daitezkeen edukiak lokalizatzeko premia dago. Lan honetan zirriboratu dugun proposamena, interesgarria izan daiteke norabide horretan, genero desberdintasunak pentsamendu historikoaren ikuspuntutik jorrazteko baliagarria da eta.

Emazteen Fabore olerkia eta *Emakumeen Kereila* ardatz hartuta, historiaren didaktikaren baitan sortu diren enfoke berri batzuk integratzeko aukera dago. Batetik, gaiak emakumeak subjektu historiko gisa tratatzea ahalbidetzen du, eta ikas-materialek zentzu horretan dituzten gabeziak gainditzeko lagungarria izan daiteke. Baina sakonago doazen elementuak ere barnebiltzen ditu gaiak. Izan ere, beste garai batzuetan emakume eta gizonen kondizioa zein izan den ezagutzeaz gain, duintasunaren eta berdintasunaren alde egin diren aldarrikapenen berri ematen da, bilakaera historikoan eragiteko agente izan direlaren kontzientzia lantzen delarik.

Beste alde batetik, lehen mailako iturrien azterketan trebatzeko materialak erabiltzeko aukera aurkezten du gaiak, historialarion lana zertan datzan ikasteko. Iturriekin lan egiterakoan ikasleagoak aurrean daukan dokumentuari buruzko interpretazio propioa eraiki behar du, eta horrek, zalantza barik, pentsamendu analitikoa lantzea inplikatzeko du. Halaber, historiako protagonistek idatzitako testuekin lan egiterakoan, pertsonai errealean esanak tratatzen direnez, ikasleek pentsamendu nahiz enpatia historikoa garatzeko aukerak dituzte, alderdi afektibo eta emozionalak agertzen dira eta.

Eta gainera, gaiak Konpetentzia sozial eta zibikoaren osagai garrantzitsu batzuk bereganatzeko parada eskaintzen du, genero desberdintasunei buruzko gatazkak historiako une desberdinetan izan dituen ezaugarriak mahaigaineratuta. Pil-pilean dagoen gai bat izanda, ikasleen motibazioa handitu daiteke. Eta batez ere, genero ikuspuntutik begiratuta, iraganeko gizarteetan eta egungoetan gizon eta emakumeen artean dauden hierarkizazio eta asimetriak detektatzen ikas dezakete ikasleek. Hortik abiatuta, berdintasunaren aldeko baloreak eta horiek sustatzeko jarrera aktiboa gara ditzakete. Norberak gaiari buruz duen iritzia propioa eraikitzea da garrantzitsuena, etorkizun berdinzaleago bat lortze aldera egin beharreko aldaketak ondorioztatuz.

5. INPLIKAZIO DIDAKTIKOAK ETA ONDORIOAK

ERREFERENTZIA
BIBLIOGRAFIKOAK

236/2015 Dekretua, abenduak 22koa, *Oinarritzko Hezkuntzaren kurrikuluma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena*, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 9, 2016/01/15.

Aldekoa, Inaki: "Bernard Etxepare: Doctrina Christiana y Poesia Amatoria", *ASJU Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*, 44-2, 2010, 1-40 or.

Archer, Robert: *Misoginia y defensa de las mujeres: antología de textos medievales*, Madrid, Cátedra, 2001.

Arcocha-Scarcia, Aurélie; Lakarra, Joseba Andoni: "Aspectos de la gramatización antigua de la lengua vasca. Humanismo, reformismo e imprenta (1545-1596)", *Lengas*, 86, 2019. <https://doi.org/10.4000/lengas.4115>

Beteta, Yolanda: "Representaciones de la sexualidad femenina en la literatura medieval y su influencia en la consideración de las mujeres", *Arenal*, 16-2, 2009, 213-233 or.

Beteta, Yolanda: "De la costilla de Adán a concubina del Diablo. La demonización de los saberes y del cuerpo femenino en el Malleus Maleficarum", in Cristina Segura (ed.), *La Querrela de las mujeres III, antecedentes de la polémica feminista*, Madrid, Al-Mudayna, 2011, 45-73 or.

Castrillo Janire, Gillate, Iratxe, Odriozola, Onintza, Campos, Teresa: "¿Son las mujeres sujeto histórico para el alumnado de ESO? Un estudio de caso", *Clio. History & history teaching*, 45, 2019, 11-29 or.

Castrillo, Janire, Gillate, Iratxe, Luna, Úrsula, Vicent, Naiara: "Las mujeres medievales en los libros de Primaria: crítica y propuestas", *Cadernos de Pesquisa*, 51, 2021, 1-18 or. <https://doi.org/10.1590/198053140000>

Díez-Bedmar, M^a Consuelo: "Enseñanza de la Historia en educación preuniversitaria y su impacto en la formación de identidades de género, repercusiones en la Universidad", *Clio: History and History Teaching*, 41, 2015.

Endacott, Jason L., Brooks, Sarah: "An Updated Theoretical and Practical Model for Promoting Historical Empathy", *Social Studies Research & Practice*, 1, 2013, 41-58 or.

Fernández Valencia, Antonia: "Las mujeres como sujeto histórico: género y enseñanza de la historia", *Didáctica de las ciencias experimentales y sociales*, 18, 2005, 5-24 or.

Fuente, M^a Jesús: "Voces profemeninas en la querrela de las mujeres: Álvaro de Luna y el Libro de las claras y virtuosas mujeres", in Cristina Segura (coord.), *La querrela de las mujeres. Análisis de textos*, Madrid, Almudayna, 2010, 105-129 or.

García Luque, Antonia, Peinado, Matilde: "LOMCE: ¿es posible construir una ciudadanía sin la perspectiva de género?", *Iber. Didáctica de las Ciencias Sociales, Geografía e Historia*, 80, 2015, 65-72 or.

Gómez, Cosme J., Ortuño, Jorge, Miralles, Pedro: *Enseñar ciencias sociales con métodos activos de aprendizaje: reflexiones y propuestas a través de la indagación*, Barcelona, Octaedro, 2018.

Graña, M^a del Mar: “Mariología, reginalidad y poder en Isabel de Villena. Una teoría política femenina del siglo XV”, *Mirabilia, Eletronic Journal of Antiquity & Middle Ages*, 22(1), 2016, 96-127 or.

Hahn, Carole L., Bernard-Powers, Jean, Crocco, Margaret S., Woysner, Christine: «Gender equity in social studies», in Klein, Susan (ed.): *Achieving gender equity through education*, Mahwah, Lawrence Erlbaum, 2007, 335-357 or.

Haritschelhar, Jean: “Emazteen fabore”, in VV.AA.: *Euskal Gramatikari eta literaturari buruzko Jardunaldiak XXI. mendearen atarian (I-II)*, vol. 2, Euskaltzaindia, 2003, 113-124 or.

Kelly, Joan: “Early Feminist Theory and the “Querelle des Femmes”, 1400-1789”, in *Women, History and Theory. The Essays of Joan Kelly*, Chicago/London, University of Chicago Press, 1984, 65-109 or.

King, Margaret: “Isotta Nogarola, umanista e devota (1418-1466)”, in Ottavia Niccoli (ed.), *Rinascimento al femminile*, Roma-Bari, Laterza, 1991, 3-33 or.

Kortazar, Jon: “Bernard Detxepare: bidegurutzean”, *Enseiukarreen*, 12, 1996, 29-35 or.

Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación, Boletín Oficial del Estado nº 106, de 04/05/2006.

Ley Orgánica 8/2013, de 9 de diciembre, para la mejora de la calidad educativa, Boletín Oficial del Estado nº 295, de 10/12/2013.

López Facal, Ramón, Santidrián, Víctor M.: “Los «conflictos sociales candentes» en el aula”, *Iber Didáctica de las Ciencias Sociales, Geografía e Historia*, 69, 2011, 8-20 or.

Medrano Lerchundi, Conchi: “Margarita de Navarra”, *Aintzina: revista de genealogía vasca e historia local*, 28, 2019, 57-92 or.

Merchán, Francisco Javier, García, Francisco F.: “El tratamiento de problemas de nuestro mundo en la enseñanza obligatoria”, *Aula de Innovación Educativa*, 61, 1997, 9-12 or.

Miralles, Pedro, Belmonte, Pedro: “Historiografía, Historia de las mujeres y enseñanza de la Historia en el Bachillerato”, in María Isabel Vera-Muñoz, David Pérez i Pérez (eds.), *Formación de la ciudadanía: las TIC y los nuevos problemas*, Alicante, AUPDCS, 2004, 619-629 or.

Molina-Puche, Sebastián, Miralles, Pedro, Deusdad, Blanca, Alfageme, M^a Begoña: “Enseñanza de la historia, creación e identidades y prác-

ticas docentes”, *Profesorado: revista de currículum y formación del profesorado*, 21(2), 2017, 331-354 or.

Monteagudo, José; Moreno, Juan Ramón (eds.): *Temas controvertidos en el aula. Enseñar historia en la era de la posverdad*, Murcia: Univ. de Murcia, 2019.

Múgica, Matías: *Margarita de Angulema: una princesa del Renacimiento*, Pamplona, Gobierno de Navarra, 2015.

Núñez, M^a Isabel: “Alteridad y negación histórico jurídica del raciocinio femenino”, in Rosalía, Rodríguez, M^a José Bravo (eds.), *Experiencias jurídicas e identidades femeninas*, Madrid, Dykinson, 2010, 417-442 or.

Nazio Batuen Erakundea, *Transformar nuestro mundo: la Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible*, 2015, in <https://bit.ly/37g806E> (kontsul-ta: 30/09/2020).

Ortega, Delfín: *Las mujeres en la enseñanza de la historia y de las ciencias sociales*, Tesis de Doctorado, Barcelona, Universitat Autònoma, 2017, in <https://www.tesisenred.net/handle/10803/457981#page=1> (kontsul-ta: 30/09/2020).

Oria Osés, Jon: “La maravilla del humanismo renacentista en la corte de Navarra durante el siglo XVI”, in *1512: Actas del I Congreso de Historiadores de Navarra = Euskal Herriko Historialarien I. Biltzarreko aktak*, 2010, 123-128 or.

Oyharçabal, Beñat: “A Note on Literary Historiography: Bernard Etxepare, a Medieval Author?”, in *Linguae Vasconum Primitiae. The First Fruits of the Basque Language, 1545*, Reno: University of Nevada, 2012, XVII-LII or.

Pagès, Joan, Sant, Edda: Las mujeres en la enseñanza de la Historia: ¿hasta cuándo serán invisibles?. *Cadernos de Pesquisa do CDHIS*, 25(1), 2012, 91-117 or.

Pagès, Joan: «La educación para la ciudadanía y la enseñanza de la historia: cuando el futuro es la finalidad de la enseñanza del pasado», in Ávila, Rosa M^a, López Rafael, Fernández De Larrea, Estibaliz (ed.): *Las competencias profesionales para la enseñanza-aprendizaje de las Ciencias Sociales ante el reto europeo y la globalización*, Bilbao, AUPDCS, 2007, 205-216 or.

Real Decreto 1105/2014, de 26 de diciembre, por el que se establece el currículo básico de la Educación Secundaria Obligatoria y del Bachillerato, Boletín Oficial del Estado, n^o 3, de 03/01/2015.

Rüsen, Jörn: “Forming historical consciousness towards a humanistic history didactics”, *Antíteses*, 5(10), 2012, 519-536 or.

Saíz, Jorge: “What kind of Medieval History should be Taught and Learned in Secondary School?”, *Imago Temporis. Medium Aevum*, 4, 2010, 357-372 or.

Sánchez, Raquel, Miralles, Pedro: “Pensar a las mujeres en la historia y enseñar su historia en las aulas: estado de la cuestión y retos de futuro”, *Tempo e Argumento*, 6-11, 2014, 278-298 or.

Schmeichel, Mardi: “Women made it a home”: representations of women in social studies”, *Pedagogies: An International Journal*, 9(3), 2014, 233-249 or. DOI: [10.1080/1554480X.2014.921622](https://doi.org/10.1080/1554480X.2014.921622).

Segura, Cristina: “Presentación”, in Segura, Cristina (coord.): *La Querrela de las mujeres III. Antecedente de la polémica feminista*, Madrid, Almudayna, 2011, 7-21 or.

Segura, Cristina: “Cómo construimos la Historia de las Mujeres desde las Universidades españolas”, *Revista de Historiografía*, 22, 2015, 255-271 or.

Seixas, Peter: “A History/Memory Matrix for History Education”, *Public History Weekly*, 4(6), 2015. DOI: [dx.doi.org/10.1515/phw-2016-5370](https://doi.org/10.1515/phw-2016-5370).

Seixas, Peter: “A Model of Historical Thinking”, *Educational Philosophy and Theory*, 49(6), 2017, 593-605 or. doi:10.1080/00131857.2015.1101363

Serrano, Florence: “Del debate a la propaganda política mediante la querrela de las mujeres en Juan Rodríguez del Padrón, Diego de Valera, y Álvaro de Luna”, *Talia dixit: revista interdisciplinar de retórica e historiografía*, 7, 2012, 103-106 or.

Souto, Xosé M., López Facal, Ramón: “¿Es la crisis un contenido educativo de geografía e historia?”, *Íber: Didáctica de las Ciencias Sociales, Geografía e Historia*, 84, 2016, 7-13 or.

Thomasset, Claude: “La naturaleza de la mujer”, in Duby, Georges eta Perrot, Michelle (ed.), *Historia de las mujeres en Occidente. La Edad Media*, Madrid, Taurus, 1992, 61-92 or.

Urkizu, Patri: «Bernat Etxeparen bizitza-garaiaz albiste gehiago eta linguae vasconum primitiae (1545)-ren berrirakurketa», *Revista de Lengua y Literatura: Catalán, Gallego y Vasco*, 17, 2012, 203-224 or.

Urquizu, Patricio: *Poesía Vasca. Antología bilingüe*, Madrid, UNED, 2013.:

Vaíllo, María: “La investigación sobre libros de texto desde la perspectiva de género: ¿hacia la renovación de los materiales didácticos?”, *Tendencias Pedagógicas*, 27, 2016, 97-124 or.

Valerio, Adriana: “Introducción. La Biblia en el centro: la *renovatio ecclesiae* y el surgimiento de la subjetividad femenina (ss. XIII-XV)”, in Borresen, Kari eta Valerio, Adriana (ed.), *La Biblia y las mujeres. Medioevo II (siglos II-XV). Entre recepción e interpretación*, Madrid, Verbo Divino, 2012, 15-48 or.

Vargas, Ana: “‘La ciudad de las damas’ de Christine de Pizan: obra clave de la querella de las mujeres”, in Segura, Cristina (koord.), *La querella de las mujeres. Análisis de textos*, Madrid, Almudayna, 2010, 21-27 or.

Vargas, Ana: “Sobre los discursos políticos a favor de las mujeres (El Triunfo de las donas de Juan Rodríguez de la Cámara)”, *Arenal*, 20(2), 2013, 263-288 or.

Vargas, Ana: *La querella de las mujeres. Tratados hispánicos en defensa de las mujeres*. Madrid, Fundamentos, 2016.

Vives, Juan Luis: *Instrucción de la mujer cristiana*, 1523. Biblioteca Valenciana Digital (kontsulta 08-01-2022): <https://bivaldi.gva.es/es/corpus/unidad.do?posicion=1&idCorpus=1&idUnidad=10066>